

**Donostia'n, Gipuzkoa'ko Aldundi-Jauregian,
1926'ko Lotazila'ren 21'an.**

Ementxe aipatzen diran euskaltzain jaunak batzaraldia dotoz: Azkue maipuru, Urkijo, Landeñetxe, Eguskitza, Olabide, Intza, Intzagarai, Etxegarai, Lakonbe ta euskaltzain-ordekoak Muxika ta Garitaonandia; urgazlerik batez. Otoitzez asi da batzaraldia.

I.—Aita Intza'k Napafoa'ko euskeraren aldeko berriak ekañ dizkigu ta Euskaltzaindiak gogorik onenaz entzun dizkiyo.

II.—Ormaetxea urgazle jaunak bere lan bat biala digu, erderazko izen onekin: *Composición gramatical vasca*. Irakuñ ondoren, Euskaltzaindiak onetsi du ta *Euskeran* argitaratuko da.

III.—Eguskitza jaunak Intxauspe'ren *Imitazio*-netik ateratako itzak ekañ dizkigu, orain eskuartean darabilkigun Iztegiaren ornigari.

IV.—Aita Intza'k alde bat eta beste bildu dituan itz eta esakerak irakuñ dizkigu. Abek ere gordetzea erabaki da esandako Iztegiaren ornigari ere.

Ta beste gairik izan ez da otoitzez amaitu da batzaraldi au.

**Donostia'n, Gipuzkoa'ko Aldundi-Jauregian,
1926'ko Lotazila'ren 22'an.**

Aureko batzaraldian aipatu diran euskaltzain ta ordekoak dotoz eta urgazletatik Lekuona jauna. Otoitzez asi da batzaraldia.

I.—Azkue jaunak Lardizabal zanaren «Testamentu zar eta beriko kondaira=kondaira»'tik adizkera batzuek berezitu ditu ta zeazkiro aztertū dira.